

Antxoaren lehen kanpaina da kooperatibak iraunkortasunaren zigilua lortu zuenez geroztik

EROSKI-K 295 TONARA HANDITU DU ARRANTZA IRAUNKORREKO MSC ZIGILU URDINA DUEN KANTAUURIKO ANTZOAREN EROSKETA

- Kooperatibak % 4 handitu du Kantauriko antxoaren erosketara osoa; antxoaren % 85 MSC zigilua duten itsasontzietatik dator
- Hegaluzearen aurtengo kanpainan, EROSKI-k arrantza iraunkorreko zigilu urdina duen hegaluzeara ere ipini du arrandegietan
- Kooperatibak espero du MSC zigilu urdina duen arrainaren bi milioi kilo merkaturatzea 2020an
- EROSKI-k konpromisoa hartu du bere Arrantza Iraunkorraren Politikarekin, itsasoko ekosistema errespetatzen duen arrantzaren mesedetan aritzeko. Kontsumitzaileak, horrela, eskura izango ditu beste modu batzuk era osasungarriagoan eta iraunkorragoan elikatzeko

Elorrio, 2017ko uztailaren 4a.- [EROSKI-k](#), iraunkortasunaren zigilua duen arrain freskoa merkaturatzeko MSC zigilua lortu ondorengo antxoaren lehen kanpainan, aurten 295 tonara handitu du arrantza iraunkorreko MSC zigilu urdina duen Kantauriko antxoaren erosketara. Arrandegietan EROSKI Natur markarekin merkaturatu du.

2016ko kanpainan, kooperatibak % 4 handitu du Kantauriko antxoaren erosketara; hartara, 347 tona erosi ditu, eta horren % 85 MSC zigilua duen antxoa da.

Hortaz, EROSKI-k indartu egin du tokiko arrantzaren aldeko apustua, freskoetan eta ardura handiagoa dakarten elikagaiak merkaturatzean duen lidergoa sendotzeko, hori baita elikadura osasungarria eta iraunkorra izateko oinarria, Zurekin eredu komertzialaren funtsa.

"Kanpaina honetan, arrantza iraunkorreko MSC zigilu urdina duen Kantauriko antxoa ipini dugu arrandegietan, eta horrek erakusten du nolako konpromisoa dugun arrantza iraunkorrarekin. Aurrenekoa skrei bakailaoa izan zen; oraingoan, ordea, antxoa izan da, eta egun hegaluzearen kanpainari heldu diogu. Horregatik, espezie hori ere arrandegietan ipini dugu, arrantza iraunkorreko zigilu urdinarekin. Nazioarteko zigilu horrek MSC ekoetiketa urdina duen arrain freskoa arrantza iraunkorretik datorrela bermatzen du, bai eta trazabilitatea

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

erabatekoa dela ere. Bezeroei aukera berriak eskaini nahi dizkiegu, elikadura osasungarriagoa eta arduratsuagoa izan dadin", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun Saileko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI da arrandegietan MSC zigilua duen lehen txikizkako banaketa-katea

Urte honen hasieran, EROSKIk gainditu egin zuen Marine Stewardship Council (MSC) nazioarteko erakundearen ikuskaritza, zigilua arrandegietako zaintza-katean eskuratze aldera; gainera, hori lortu duen Espainiako lehen txikizkako banaketa-katea izan da.

Espainian, EROSKI da liderra freskoen erakusmahaietan MSC ekoetiketarekin bat egin dutenen artean, eta konpromiso hori funtsezko babesa da iraunkorraren alde ari diren ekoizleentzat.

"EROSKIk apustua egin du MSC zigilu urdina duten bakailaoa, antxoa eta hegaluzea haren arrandegietan egon daitezen, eta hori funtsezko babesa da iraunkortasunez jarduten duten flotek aitortza jaso dezaten. Halaber, lagungarri da kontsumitzaileek gustukoak dituzten arrain-espezieak etorkizunean ere jan ditzaten", adierazi du Laura Rodríguez Zugastik, Marine Stewardship Councilen zuzendariak Espainian eta Portugalen.

2017. urtean, EROSKIk hitzeman du zenbait arrain-mota saltzen hasiko dela arrantza iraunkorreko MSC zigilu urdinarekin, hala nola bakailaoa, Kantauriko antxoa eta hegaluzea, eta pixkanaka, beste arrain-espezie batzuetara hedatuko du. Espero da MSC ekoetiketa duen arrainaren bi milioi kilo merkaturatzea 2020an.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)